



Egunon eta eskerrikasko hemen hartzeagatik.

TOPA, Tolosaldea osasun publikoaren alde, Koordinakundeko ordezkariak gara. Koordinakunde honek talde desberdinek osatzen dute, eta 17.000 sinaduren, Tolosaldea, Andoain eta Legorretako alkatetzen eta Gipuzkoako Gizarte Polikaren Diputatuaren babesa ditugu.

Gure aldarrikapenak hauek dira eta izango dira :

KUDEAKETA PUBLIKOKO ESKUALDE HOSPITALE PUBLIKO BAT
ETA
TOLOSAKO ESPEZIALITATEEN ANBULATORIOA OSOKI MANTENTZEA

Azaroak 14, Astelehena, Osakidetza eta Asunción klinikaren arteko Tolosaldearako osasun berrantolaketaren akordioa sinatu izanagatik, gure erabateko desadostasuna eta haserrea adierazi nahi ditugu lehenik eta behin. Hitzarmen hau inposaketa bat dela adierazten dugu, hitzarmenaren sinaketarekin milaka pertsonen, kolektibo eta instituzio publikoen eskaerak alde batera utziz, interes político eta ekonomiken alde egin delako.

Hitzarmen honen kontra gure desadostasuna adierazteko arrazoiak hauek dira:

1- Tolosaldea, Euskal Herriko eskualde bakarra da kudeaketa publikoko Eskualde Ospitale Publikoa ez daukan bakarra:

Espezialitateen Anbulatorioa desagertuko da, espezialitate guztiak Asunción Klinikak emango du eta ez dugu Donostia Ospitalera joateko aukerarik izango.

Beste guztiak bezela ordaindu arren, baliabide gutxigoko osasun arreta ari gara jasotzen, ez dugulako sare publikoko Osakidetzan arreta espezializatua izateko aukerarik.

2- Interes politiko eta ekonomikoak bultzatu direla diogu

Asunción Klinikak Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin duen zorraz jakinik. Zor hau Inviza enpresaren aldetik kitatua izan denaren zalantzak daude. Enpresa honek 18 urte daramatza Klinikako kudeaketa

pribatua eramaten.

Hitzarmen honekin ez gatoz bat, zorpetuta dagoen empresa pribatu baten alde egiten duelako, jakinik entitate publikoekin dauzkan ardurak betetzen ez dituela.

Arrazoi nabaria izan beharko luke empresa horrekin konzertazioa ez sinatzeko eta Tolosaldearentzat kudeaketa publikoko zentru publiko batean arreta espezializatua jaso ahal izateko aukerak bilatzeko.

Azaroak 11ean Tolosako hiru herritarrek errekurtsua jarri zuten Asunción Klinikaren zabaltze lanetarako baimenaren aurka, eta Tolosako Udaletxeak obrak geldiarazi ditu oraingoz paralizazio cautelar baten bidez.

Klinikaren zabaltze lanetarako baimenean: Zonalde berdeetareko antolaketarekin eta, "No Urbanizable" bezela katalogaturiko terrenoan urbanizatzeagatik, konpentsazio ekonomikoa edo lur sailen zesioa.

Ordainetan Udaletxeak parkina egin ahal izateko eta empresa pribatu batez gestionatua izateko lur saila eta obraren zergaren %95^a ordaintzeko diru laguntza.

Aurreko alkatetzak klinikari ezarritako baldintzak betetzen ez dituenaz, herritar hauek jarritako errekurtsuari babes oso ematen dio koordinakunde honek, lanetareko baimen honen ikuskatzea ekarriko bait du.

3- Tolosaldeako herritarrak kezkatuta gaude gure osasun arretaren okerragotzea eman daitekeela ikusten dugulako.

Zabalpen lanetarako baimenarekin zer gertatzen den argitu bitarteko denborari, lanek iraungo duten hiru urteak, aurreikusten den bezela, gehituta, denbora horretan, 65.000 pertsoneri arreta espezializatua emateko prestatuta ez dagoen klinika batek emango digu arreta hori, Espezialitateetako anbulatoriork gabe eta Donostia Ospitalera joateko aukerarik gabe. Beraz, oraindik eta baliabide gutxiagoko zerbitzua emango zaigu eta beste eskualdeekiko desberdintasunak haundituko dira.

2011-11-19 an Noticias de Gipuzkoan agertutako berriaz kezkatuta gaude ere. Berri honek dionez, Asunción Klinikak bere ZIU unitatea kenduko du 2011eko Urtarriletik aurrera, URPA (Unidad de Reanimación Post Anestésica) batean bihurtzeko. Eta Klinikako Gerentearen hitzak "gaur esan dezakegu oraindik ez dakigula zer egingo degun" direnez, Tolosaldean gure arretaren kalitatea arriskuan ikusten dugu.

- Aipatu diren bikoiztasunak eta koodinazio ezak ez saihestearen arduradunak, eta Anbulatorioaren kalterako, klinikari mesede egin dioten kudeatzaileak dira. Hauek saihesteko egin behar ziren ikuskapenak ez direlako egin.

- Klinika pribatu- kontzertatu batek emango digunez arreta, ahaztu gabe empresa pribatu batek etekin ekonomikoa bilatzen duela, eta empresa horrek, zabaltze lanen baimenerako hitzartutako baldintzak ez dituenetz bete

ESKAERA EGITEN DUGU:

- **Konzertazio akordioaren dokumentazioa**
- **Akordioaren gauzatzerako ezarritako data eta neurri zehatzei buruzko informazioa**
- Jasoko dugun osasun arretaren kalitatean izan dezakeen eraginagatik kezkatu gaude eta gure kalitatezko osasun arreta bermatua ez dagoen bitartean:

EXIJITZEN DUGU :

Tolosako Espezialitateetako Anbulatorioa orainarte bezela lan egiten jarraitzea eta kendutako giza baliabide eta baliabide teknikoez berriz hornitzea

ETA PROPOSATZEN DUGU:

- **Batzorde bat osatea**, gaiarekin erlazionatuta dauden eragileez osatua (Osakidetza, Udaletxeak, Sindikatuak klinika eta Koordinakundea), Tolosaldearako Osasun berrantolaketa honen prozesuari jarraipen puntuala egiteko.

www.osasunpublikoa.blogspot.com